82. zenbakia - 2009ko maiatza

artzape

GETARIARRON TOPAGUNEA

UXUE ALBERDI: “AULKI-JOKOA”

] ARRANTZALE EGUNA

KETA ERREGIONAL MAILARA]

Artzape; noiz arte?

TXOKO
ERRETEGIA

kaia gainean. Tlf. 943 140 539

OSTOLAZA
EDARITEGIA
kaxuelitak eta
plater konbinatuak
Elkano, 33 Tel.: 943 140 214

Saiazgetaria
HOTELA
BILERA GELA DAUKAGU
Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa
T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

SAN PRUDENCIO
JATETXEA
JATETXEA - ERRETEGIA
20808 GETARIA
(ERREPIDETIK 600 METRORA)
IKUSPEGI BIKAINAK
943 14 06 27 - 943 14 04 11

OSTOLAZA
ANAIAK
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110

kutxa

Antxoak eta Bakailaoa
ITSAS
MENDI
www.maisor.com
gutiziak
Kaia, z/g
Eusko Gudari, 5
Tel. 943 140 993
Tel. 943 248 774
GETARIA
ORIO

BABEXA
Getariako dendari elkartea

ENBATA
Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA 943 424797

ELKANO
Jatetxea
Herrerieta, 2
Telefonoak: 943 14 00 24
943 14 06 14
20808 GETARIA

POLITENA
GURE BEREZITASUNAK:
• Aste egunean:
Eguneko Menua
• Jai egun eta Asteburuetan:
Luxuxko Pintxoak,
Bokatak eta Razioak.
• Eramateko eskaerak:
• Wi-Fi zerbitzua.
GETARIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

ERROTA



OPIL - OKINDEGIA
Elkano, 7
Tel.: 943 140 017

KAIA - KAIPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

INDAUX
Tel.: (+34) 943 899 100 Fax:(+34) 943 899 101 indaux@indaux.com
INDUSTRI AUXILIARRAK (INDAUX), S.A. SAN PRUDENTZIO, S/N. 20808 GETARIA
APDO. 132. E-20800 ZARAUTZ (GIPUZKOA) www.indaux.com

"Txakurraren gau erdiko ametsak"

artzape

82. zenbakia

2009ko maiatza

]5/Inkesta: *Artzape* aldizkaria

]6-7/Getarian zer berri?:

Arrantzale Eguna

KETA lehen mailara

]8-9/Elkarrizketa: Uxue Alberdi

]10-11/Elkarrizketa:

Getariako Sustraiak herri ekimena

]12-13 Argazkien Txokoa: Meagako Sanisidroak

]14-15/Erreportajea: *Artzape* aldizkaria; noiz arte?

]19/Sinesmenen txokoa: Musulmanak

]20/Historiaren katebegiak:

Behe Erdi Aroan Getariako itsas jarduerek

]23/Akordatzen: *Arrantzale Eguna*

artzape
Eskualtxeta kulturgunea
Krixketaneko Iturrigaina

Tel.: 943 00 05 48
artzape@topagunea.com

Gure Txeru Elkartea

[argitaratzailea] Gure Txeru Elkartea [koordinazioa] Amaia Iribar eta Maider Ostolaza [lan taldea] Izaskun Larrañaga, Monika Uzkiza, Ane Azkue, Jon Illarramendi, Josune Urresti, Kepa Iribar, Imanol Iribar, Zigor Saizar, Amets Etxabe, Irantzu Ezenarro, Aitor Irigoien, Beñat Gereka, Mikel Mugika [kolaboratzaileak] Gari Berasaluze, Josi Erauskin, Nika Lertxundi, Xabier Alberdi eta Suso Perez [argazkiak] Artzape [publizitatea] Artzape
[inprimaketa] Gertu [tirada] 1.175 ale [lege gordailua] SS-504/01 [ISSN] 1578-469X

Getariako Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

] gutunak

Ta agindutako etxebizitzak?

Denbora da azken "udal-hauteskundeak" igaro zirela. Egunak, hilabeteak, urteak pasa dira, bai. Udal-hauteskunde horietarako programetan, alderdi politiko bakoitzak hainbat alorretan zituen egitasmoak plazaratu zituen (Hirigintza, Kultura, Euskara, ...).

Hirigintza alorrari dagokionez, gaur egun Getariako udalean buru den alderdiak (EAJ-PNV) honako hau zioen: "Herritaren beharrak %100 beteko dituzten arau subsidiario berriak egiten 3 urtetik gora pasa ondoren, honako lanak beteko dira:

- Sahatsagan 128 etxe (71 babestu / 57 libre)
- Potzuagan 130 etxe (85 babestu / 35 libre)
- Depositoan 19 etxe libre
- Meagan 18 etxe babestu."

Ez dakigu noizko izango diren agindu zenituzten etxe horiek (noizbait egingo direnik ere ez), oraindik ez baita lurmugimendurik ikusten. Iruditzen zaigu ixil-ixilik eta ahalik eta zarata gutxien ateraz (disimuluaz), hurrengo udal-hauteskundetara iristea dela zuen helburua.

Zuek zenioten bezala, Hirigintza herritarren bizkar hezurra bada, etxebizitzen arazoak beste zenbait proiektu eta egitasmo baino lehentasun handiagoa izan beharko lukeela uste dugu. Zuei dagokizue!

Idatzi honen bitartez, etxebizitza alorrean zuen egitasmoen berri jakiteko, herritarrei informazioa ahoz ematea eskatzen dugu (udal aretoan, alondigan, edo beste edozein lekutan), eta ez panel hutsen bitartez. Uste dugu gure jakinnahi honekin beste getariar askok bat egingo duela (gazte, heldu, ...), horretarako eskubidea baitugu. Ikusiko garelakoan...

Aitor Aldalur, Beñat Etxabe,
Oier Iribar, Jon Osa

Alternatibaren alde, AHTrik EZ!

Abiadura HandikoTrena astakeria dela pentsatzen dugunok, hori baieztatzen duen informazio baten berri jakin dugu. Jakin diot, zoritxarrez Euskal Herriko milaka etxebizitzetan ez bezala, getariarron buzoietara ez delako iritsi eta beraz, zuzenean ezagutzeko aukera galdu dugulako.

AHT gelditu! Elkarlanak egindako ekimenak, gure herrian inoiz egin den lanik handienak gugan izango duen kostu ekonomikoa azaleratzen zigun: AHTa egiteko 10.000 milioi euro beharko direla, edo beste modu batera esanda, biztanle bakoitzeko bataz-beste 4. 800 €ko gastua suponituko duela.
Milaka milioiei krisi garaiak gehitzen badizkiogu, azpiegitura erraldoiak sortuko dituen txikizio naturalak (Hego Euskal Herrian orainarte ezagutu gabekoak) kontutan hartu eta gehiengoak erabiliko ez duen garraioa dela jabetzen bagara, zertarako abiadura handiko trena?

Gizartearen gehiengoaren beharrei erantzungo liokeen tren sozialerako alternatiba mahai gainean dago. Askoz ere merkeagoa eta gehiengo handi batek probetxu aterako genion aukera beharrezkoa bezain gauzagarria dena. Alternatibak aurrera! AHTrik ez!

Nahia Inza
GETARIAKO EZKER ABERTZALEA

Artzaperen oharra:

Aurreko zenbakian Getariako Uri Buru Batzarraren gutunean argitaratutakoa argitu nahirik, Artzapek gogorarazi nahi du irakurleei irekitako atal honetan argitaratzen diren gutunak erredakzioan jasotzen ditugunak direla, Artzapek jarritako baldintzak betez gero betiere, horien artean irainik ez izatea.

Artzapek zerbait esateko duten herritar eta talde guztiak animatu nahi ditutarte hau erabiltzera .

] inkesta Aitor Irigoien, Beñat Gereka eta Mikel Mugika]

Dagoeneko badira urte batzuk Getariak euskarazko herri-aldizkari propioa duela: Artzape. Zure ustez, orain arteko ibilbidea kontuan izanik, herriak BEHAR al du halako aldizkari bat? Zure ingurune hurbilean (familia, lagunartea...) zer nolako balorazioa eta estimazioa du Artzape hilabetekariak?

artzape
GETARIARRON TOPAGUNEA

Andoni Iturbe

Beharrezkoa ez dakit, bakoitzak behar desberdinak baititu, baina oso gustukoa eta estimatua bada. Nire ingurura begira adibidez, denok irakurtzen dugula konturatzen naiz, bai etxean eta baita lagunartean ere. Eta nik uste herrian bertan ere gehiengo zabal batek gustura irakurtzen duela Artzape. Izan ere, herriko bertako kontu ugari irakur daitezke aldizkarian hilabetez hilabete eta, gainera, euskaraz, gure hizkuntzan. Horren harira, nik uste euskaraz irakurtzeko ohitura eta euskara bera bultzatzen dela Getarian Artzaperen bidez.

Niri beharrezkoa iruditzen zait Artzape aldizkaria. Bai herriko gertakari desberdinen berri izateko eta baita euskaraz irakurtzeko ere. Gure etxean haurrek eta helduek, guztiok irakurtzen dugu beti. Harrera oso ona du etxean Artzapek eta gisa honetako ekimenak garrantzitsuak direla iruditzen zait.

Begoña Lukas

Egoitz Mateos

Nire iritziz oso ondo dago Artzape, gehienbat herrian gertatzen diren gauzen berri eta nobedade guztien inguruko informazioa izateko. Nik gehien estimatzen dudan ataletako bat kirol berriena izaten da, herriko talde desberdinek beren lehiaketetan ze emaitza lortu dituzten jakitea asko interesatzen baitzait (Keta futbol taldea, Arraun taldea, pilota-txapelketak, herriko futbito-txapelketa...). Gainera, tartean zure taldearen eta emaitzen berri ematen duela ikusteak ere ilusio handia ematen dio bati. Gure etxean denok irakurtzen dugu aldizkaria eta guztiok dugu oso estimatua eta baloratua.

Nik esango nuke herrian Artzape aldizkaria asko baloratzen dela. Inguruko herri gehienek, guztiek ez esateagatik, dute herri-aldizkari bat, eta Getariak ere berea izateari aparteko garrantzia ematen diot. Hori dela eta, niri guztiz beharrezkoa iruditzen zait euskarazko halako aldizkari bat izatea; herri euskalduna izanik, euskarazko aldizkari bat ezinbestekoa da. Gure etxean, haurrek ez dute Artzape hainbeste irakurtzen baina helduok eta aiton-amonek goitik behera irakurri ohi dugu, eta oso gustura, gainera.

Manu Irureta

JOLMAR Autoeskola
AZTERKETA AZPEITIAN
Kiriki kalea, 2 • Tel y Fax 943 134 082 • 20800 ZARAUTZ

Artzapetik begira

Beñat Gereka eta Aitor Irigoien

S.O.S.

Hilabete bukaera iritsi da, eta data honetan ohitura bilakatu da getariarrontzat gure buzoietara adi-adi begiratzea. Zain egoten gara haur, gazte, heldu nahiz adinekoak; zain, Artzape gure etxeetara noiz iritsiko; zain, herri honetako abenturen eta kalenturen berri izateko. Artzape ordea, ez da zerutik erortzen. Ilusio, esfortzu eta irudimen dosi handiei eta lan-talde gogotsu baten ekinari esker da posible Made in Getaria zigilua duen hilabetekaria.

Zerbait aurrera ateratzeko, beti azalduko dira oztopo berriak bidean, eta, argia ikusten dela ematen duenean ere, beste adarren bat apurtuko da. Baina, herritik eta herriarentzako jardunean jarraitzen dugu, eta ez gara nekatu; ezin gara nekatu, aurrean dugun erronka handia baita. Azken finean, erreferentzia bat bilakatu den elkargunea da herriaren begiratoki hau; hots, getariar guztion topagunea.

Internet eta aurrerakuntzek, bakoitza bere burbuilan sartu gaituzten ideia aipatzen zen aurreko aleko artikuluetako batean, eta, horren aurrean, gure arteko harremanak sakontzeko bide ere badugu Artzape. Ez hori bakarrik, baita iritzi-askatasuna eta informazioaren berme ere, guztion komunikazio-iturri. Baina, guztiaren gainetik, gure ama-hizkuntza herrian zabaldu eta errotzeko tresna aparta da. Izan ere, nahiz eta gurea herri euskalduna izan, arrazoi bat edo beste tarteko, askok oraindik ez du euskaraz irakurtzeko ohiturarik. Horren lekuko, egunkaria erostean azaltzen dugun jarrera eta egiten dugun hautua. Hala ere, ziur gaude, gehiengoak zinez eskertzen duela halako aldizkari bat euskaraz irakurtzeko aukera.

Makina aldizkari eta milaka orrialde nahiz gai landu ostean, lan egiteko irrikaz jarraitzen dugu, hasi baino ez baikara egin; baina, kontu ekonomikoek ez dute barkatzen. Denon laguntza eta ekarpen txikirik gabe ezinezkoa da Artzape gisako egitasmoek aurrera egitea. Gu biok, "Artzapetik begira" kaia eta herria bistaratzen eta horretaz gozatzen jarraitu nahi dugu. Eta zuk? Gizakiok historian zehar errepikatu dugun akats nagusienetako batean ezin gara jauzi; hau da, zerbait falta zaigun arte, ez dugu hura behar bezala baloratzen.

Elkarrizketak, inkestak, erreportajeak, argazkiak... Independentea, askea, irekia, anitza, irakurterraza, denona... Arrazoi gehiago behar? Zure laguntza bakarrik falta da, S.O.S. deiadar honi erantzun eta pausoka bidea egiten jarraitzeko.

KETA: lehen erregional mailara!

Denboraldi bikain baten ostean, beren fruitua jaso dute Getariako Keta futbol taldeko kideek: igoera lortzea! Joan den maiatzaren 16an, Orioko Mendibeltz futbol zelaian irabazitako partidarekin lortu zuten igoera bermatzea. Taldeko kideek egindako balantzea ezin hobea da: "Bai azken denboraldi honetakoa, bai taldearen sorreratik hona bizi izandakoa aparta izan da: kirol-arloan, entrenatzailea, zuzendaritza-taldea, zaletuen babesa (dagoeneko 180 bazkide lortu ditu), herriko jendek emandako laguntza… ". Aurrerantzean taldeak duen helburutako bat goragoko kategoria honetan maila onean jarraitzea da; baina, horrez gain, bi gai estrategiko dituzte esku artean: "Batetik, babesle handi bat bilatzea, eta, bestetik, herrian futbol zelai bat izatea; ildo horretan, Udalarekin harremanetan gaude". Azkenik, Ketako kideek taldea animatu eta laguntzen jardun duten herritarrei eta inguruko lagun guztiei eskerrak eman nahi dizkiete: "Horien guztien laguntza gabe ezinezkoa izango zen gauden lekura iristea, denon artean lortu dugu!".

Zorionak, KETA!!!

KETAko kideek pozaren pozez garaipena ospatzen.

Unai Gereka piraguan irabazle

Maiatzaren 9an Gipuzkoako piragua txapelketa egin zuten Bidasoa ibaian; bertan, hiru getariarrek hartu zuten parte, Zumaiako Itsas Gain Kirol elkartearen babesarekin baina Getariko Iturzaeta Herri eskolaren izenean: Unai Gerekak (6. mailakoa), Julen Manterolak eta Haritz Mirallesek (azken biak 5. mailakoak). Hirurek alebin mailan jokatzen dute (1.500 metro).

Alebin A mailan Unai Gereka nagusitu zen, eta, horrenbestez, bera da Gipuzkoako txapelduna maila horretan. Julenek eta Haritzek, berriz, alebin B mailan hartu zuten parte, eta zortzigarren eta bederatzigarren postuak lortu zituzten, hurrenez hurren.

Zorionak, guztioi!

Unai Gereka txapelketaren une batean.

La Gaviota estropadako garaipena etxean

Maiatzaren lehen asteburuan ospatu zen X. *La Gaviota* estropadan, 30 ontzik hartu zuten parte, eta irabazlea (Mauricio Gibert) Kostabela elkarteko kidea den izan zen; Mauricio Gibertek, gainera, neguko bela-txapelketa ere irabazi du. Estropadaren ibilbidea Getarian hasten da, eta Bermeo inguruko *La Gaviota* plataformara iritsi eta gero, berriro ere Getariara itzultzen dira. Denboraldi ona egiten ari dira Kostabela elkarteko kideak; izan ere, martxoan, Antton Manterola getariarrak, Borja Villagran oriotarrak eta Unai Otxoa donostiarrak Euskadiko Txapelketa irabazi zuten, Match Race modalitatean. Horrez gain, Zumaian jokatu zen Gipuzkoako Bela Txapelketan, Salba Manterola Kostabela Elkarteko lehendakariak lortu zuen garaipena, "Ai ama" ontziarekin.

Zorionak, Kostabela elkarteko kideei!

"La Gaviota" estropadako ontzi batzuk.

Munduko marka soka-saltoan

Julio Aranburuk minutu bateko munduko marka jarri zuen soka-saltoan, apirilaren amaieran, Orioko Karela Kiroldegian; zehazki, honako errekor hau ezarri zuen: 240 salto, 59 segundu eta 40 ehunenekotan.

Zorionak, Julio!

Arrantzale Eguna

Getariako Kofradiak antolatzen duen Arrantzale Eguna maiatzaren 23an ospatu da aurtengoan, eta sare konpontzaileak izan dira protagonista nagusi; merezitako errekonozimendua dela esan digu Emeterio Urresti Kofradiako lehendakariak: "Sektore hau izan da gure motorra, beraiek sarerik konpondu izan ez balute, ezingo genuen itsasoratu; beraz, kolektibo horrek gure esker ona merezi duela uste dugu, inoiz ezbaitira behar bezala kontuan hartu". Bestalde, berdelaren kanpaina ona izan dela esan digu Emeteriok, eta, gainera, Getariako Kofradian inguruko portuetan baino kilo gehiago mugitu omen da; kalitate onari eutsi zaio, eta, prezioari dagokionez, bertan izan omen da "gora behera gutxien". Une honetan itsasontziak geldirik daude; izan ere, ekainera arte debekatuta dago antxoa harrapatzea, eta, gero, Azti eta Ifremerreko biologoek egindako informe zientifikoak jaso ostean, Europako Batasunak aurrera begira zer erabakitzen duen ikusi beharko da. Antxoaren debekua kenduko dutelakoan dago Emeterio Urresti, beti ere kuota bat ezarrita: "gure helburua edo nahia antxoaren debekua kentzea da; baina, hala gertatu arren, badakigu pixkanaka hasi beharko dugula, horrenbeste ahalegin egin eta gero, espezieari balio bat eman behar zaio". Txostenen erantzuna ezezkoa bada, zartada handia izango dela aitortu digu Emeteriok, baina erantzuna baiezkoa izango den esperantza dute. Ekainaren 15ean hasiko da hegalaburraren kanpaina, eta, zoritxarrez, iaz baino kuota txikiagoa jarri omen diete: "Izan ere, kuota horrez gain, eta iaz jasan genuen frantsesen boikota zertan geldizten den aintzat hartuta, beldur gara bide bera jarraituko ote den".

Sare konpontzaile kideetako batek bandera eramanaz.

Liga, Gipuzkoako Txapelketa eta Euskadikoa etxera

Aspaldian, bada zer ospatu Getariako Arraun Elkarteko arraunlariek egiten ari diren denboraldia dela-eta; joan den maiatzaren 16an eta 17an, Gipuzkoako Trainerilla Liga irabazi zuten bai neskek, bai jubenil mutilek. Horrez gain, San Pedron jokatu zen Gipuzkoako Txapelketan, neskak nagusi izan ziren, eta mutilek bigarren postua lortu zuten euren mailan. Eta ez da hor bukatzen, izan ere, hilaren 24an bai mutilek eta baita neskek ere Euskadiko Txapelketa irabazi zuten!!!

Zorionak guztioi!

Euskadiko Txapelketa irabazi ostean.

Berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzeko aholkuak ematen jarraitzen dugu. Etxeko atalarekin jarraituz, honako ekintza hauek aholkatzen ditugu:

Etxetresnak:

- Etxetresna bat erostean, garrantzitsua da horren energia-eraginkortasunaren maila jakitea, antzeko prestazioetarako desberdintasun handiak egon baitaitezke. Galdetu etxetresnaren kategoria energetikoari buruz: hoberena A da; okerrena, G.
- EZ utzi "stand by" botoia piztuta denbora askoan, energia kontsumitzen baitu.

Beroa:

- Neguan, 19 ºC eta 21 ºC bitarteko tenperatura nahikoa da askorentzat, eta energia asko aurreztu daiteke; izan ere, tenperatura igotzen dugun gradu bakoitzeko, energia-kontsumoa %7 igotzen da, gutxi gorabehera.
- Galdarak eta erradiadoreak egoera onean edukiz gero energia asko aurreztu daiteke (%15 inguru banakako galdaren kasuan).
- Komenigarria da berogailua erabat itzaltzea egun osoan edo denbora gehiagoan etxetik kanpo egon behar izanez gero.
- Erradiadoreek igortzen duten beroa ahalik eta hobekien erabiltzeko, ez zaie ez estalirik ez oztoporik jarri behar.
- Ateak eta leihoak ondo isolatuz gero, bero-galerak murriztuko dira; beraz, energia-gastua txikiagoa izango da.

Informazio gehiago:
Tel.: 943 896024
www.urolakosta.org
maizpuru@getaria.org

Uxue Alberdi

“Hemen gelditu zirenen ikuspegitik kontatu nahi nuen gerra”

‘Aulki-jokoa’ nobela aurkeztu zuen Uxue Alberdik, arratsero gozotegi batean elkartzen diren zenbait adinekoren bizitzak elkar lotuta.

Joseba Jaka beka jaso zuen Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984) 2006an nobela hau idazteko. Hasierako asmotik aldatuz joan da ideia, nahi zuena kontatzeko benetan inporta zitzaizkion pertsonaiak soilik garatzeraino. Idaztearen prozesua naturala izan da.

Joseba Jaka literatura beka jaso zenuen 2006an nobela hau idazteko. “Bizitzatik kontatutako heriotzari buruzko narrazioa. Drama, komikotasunetik begiratua”, esan zuen epaimahaiak orduan proiektuari buruz. Lana amaituta, identifikatuta sentitzen zara orduko hitzekin?

Egia esan, istorio bat nuen buruan, eta istorio hori aurkeztu nuen bekarako. Baina ez da heriotzari buruzkoa ere. Batez ere pertsonen arteko harremana lantzen da, Martiña eta Teresaren arteko harreman hori batez ere. Heriotza presente dago beraien adinagatik, baina gazteak direneko istorio horietan heriotza ez da gaia. Gai asko lantzen ditu. Ez da gai bakarra duen nobela.

Zaharrei buruzko nobela baino gehiago, zaharren garai bateko bizimoduari buruzkoa iruditu zait.

Pertsonaia batzuk garai jakin batean kokatzen dira. Beraiek 8 urte zituztenetik 25 urte zituzteneko horretan, eta gero 80tik 90erako tarte horretan ere beraien bizimodua erakusten da, baina ez naiz saiatu zahartzaroa esplikatzen. Ezingo nuke, gainera. Beraiek duten komunikatzeko modua eta gazteek dugun komunikatzeko modua desberdintzen ahalegindu naiz, hori bai, desberdinak direlako.

Orrialdeetan barrena, nabarmen islatzen da kostaldeko herri bateko garai bateko bizimodua. Horretan ahalegindu zara bereziki, ala istorioa girotzeko besterik ez da izan?

Ni ez naiz kostaldekoa, elgoibartarra naiz, eta aitonari dei asko egin behar izan dizkiot hainbat konturen inguruan galdezka.

Istorioan, esaterako, kontu baterako moilan uretan zeuden gasoil orbanak behar nituen, baina galdetu eta ezetz erantzun zidan aitonak: garai hartan ikatz-galdarekin ibiltzen zirela, eta antzekoak. Amarraderoak, esaterako, bizitza guztian burdinazko perretxikoak izan dira niretzat. Burdinazko perretxiko horiei nola deitzen zaien ere galdetu behar izan nuen.

Garai hartan kokatzeaz gain, niretzat arrotza zen arrantzaleen hizkuntza ere ezagutu behar nuen, eta gerrako kontuekin berdin. Gerra Zibilari buruz adineko edonork daki hemen guk baino gehiago. Hor, nolabait, egin dudan tranpa gerra hemen geratu zirenen ikuspegitik kontatzea izan da, emakumeen ikuspegitik.

Esaldi antologiko batek laburtzen du hori nobelan: "Lubakitik idatzitako gutunak gerra dira; sukaldetik erantzundakoak ez".

Hori da. Inguruan daukagun errealitate bat da, historian zehar garai guztietan eta herrialde guztietan gertatu dena gainera. Ekintza gizonena da, eta pasibotasuna emakumezkoena izan da. Badirudi istorioak ekintzan daudela, baina egote horretan, talaiatik begiratze horretan eta sentitze horretan ere errealitatea beste modu batera agertzen da. Korrika zoazenean ez zara ari sentitzen, baina gelditzen zarenean eta beste bat korrika ikusten duzunean, orduan ikusten duzu gertatzen ari dena.

Hasieran ez nekien nola kontatu gerra. Amonari gerra garaiari buruzkoak kontatzeko eskatu, eta beti berdina erantzuten zidan: kontu horiek aitonari galdetzeko, gerran aitona ibili zela, eta bera hemen geratu zela. "Nik ez daukat ezer kontatzeko" horren atzean, ordea, kontatzeko asko dagoela iruditzen zait, eta horri heldu nahi nion, baita kritika moduan ere, gaur egun oraindik ekintza gizonekin lotzen dugulako. Baretasunean eta gelditasunean ez dugu ekintzarik ikusten, baina egon badago, eta kontatzeko mila istorio daude hor. Nobelaren erdialdetik aurrera, nolabait, esaldi hori da motorra. Kontatu nahi nuena hori zela ohartu nintzen, eta horren bueltan antolatuta dago narrazioa.

Horretarako, "lore moreak dituen soinekoa jantzita" aritu zara idazten, emakumeen begiradari garrantzia emanez.

Bai. Azken batean, emakumeen begiradatik kontatutako nobela da. Hiru narratzaileak emakumezkoak dira. Hautu kontzientea izan da, gerra hemen gelditu zirenen ikuspegitik kontatu nahi nuelako. Kontzientea izan da, baina era berean oso naturalki egindako zerbait ere izan da.

Nobelako herriaren izena Kantoieta den arren, bazter guztietatik Getaria ageri da: Artzapeko petrila, Katrapona, moila, alde zaharreko kaleak... Gaur egun Getarian bizitzeak zenbateraino eragina izan du lekua hautatzerakoan?

Nobelaren ideia nondik sortu zitzaidan kontatu behar da horri erantzuteko. Nire familia erdia getariarra da, eta Getariarekin beti izan dut lotura. Txikitan astebururo etortzen ginen, uda hemen pasatzen genuen eta, beraz, kostaldeko herri baten nire erreferentzia bakarra Getaria zen. Aitona-amonak ere buruan nituen, eta getariarrak dira. Istorioa, nolabait, anaiaren esaldi batetik sortu zen. Argazkilaritza oso gustukoa du anaiak, eta aitona-amonak bisitatzera etorri ginen batean, "begira zein argazki polita" esan zuen, gozotegi batean aitona-amonen hamaika makila elkarren ondoan ikusita. Hamaika makila. Bi hitz horiek kateatu ninduten, nahi gabe, bueltaka, eta ez zitzaizkidan joaten. Makila bakoitzaren istorioa, eta istorio guztiak elkarrekin, gozotegi batean. Gero, azkenean, horrekin antzik ez duen nobela atera da, baina hasieran hortik sortu zen.

Dena dela, niretzat, Kantoieta, bere horretan, Kantoieta da. Ez da izan Getaria saihesteko asmatutako hitza, kontatzen diren istorio asko errealitatean oinarritutakoak baitira, baina pertsona ezberdinei entzundakoak nahastuta daude, pertsonaiak ere asmatuak dira, eta orduan fikzioa nahiago izan dut herria izendatzerakoan. Dena dela, buruan herri baten egitura izan dut, eta zentzu horretan Getariak balio du. Herri baten egitura du, eta literarioki ematen du jokoa.

Zaharrak hautatu dituzu istorioa harilkatzeko. Ez da oso ohikoa gazteen artean.

Aitona-amonak, betidanik, umetatik, aitona-amona bezala ikusi izan ditut. Eta aitona-amonak bezala, zahar guztiak. Zaharrak, beti, zaharrak izan dira niretzat, eta zaila zitzaidan imajinatzea horietako batek 25 urte edota 8 urte izan zituela noizbait. Imajinatzen jarrita ere, errazagoa egiten zitzaidan 8 urtekoak imajinatzea, gaur egungo nire adinekoak baino.

Amaitzeko, ohiko galdera: Uxue Alberdi kazetaria, idazlea eta bertsolaria ezagutzen dugu. Zer da ofizioa eta zer afizioa zuretzat?

Kazetaritza ofizioa da niretzat. Gustatzen zaidan ofizioa. Aukera edukita, ordea, ez dut nire burua zortzi orduz erredakzio batean sartuta ikusten. Gainerakoan, zaila egiten zait afizioaren eta ofizioaren arteko muga zehaztea. Askotan nahastu egiten dira afizioa eta ofizioa.

Literatura, berriz, pasioa da niretzat. Ez noa idazle tituluaren bila, baina uste dut ezingo nukeela idatzi gabe bizi. Motorra da niretzat. Uste dut errazago biziko nintzatekeela plazan bertsotan egin gabe, bertsolaritzarik gabe, idatzi gabe baino. Niretzat bertsolaritza ez da literatura baino garrantzitsuagoa, baina pasio handiak dira biak. Hitza da, azken batean. Hitza, komunikazioa, sentimenduak eta istorioak pasioa dira niretzat. Inportanteena, egiten den guztian bihotza jartzea da. Kazetaritzan ere, beharbada elkarrizketa bat edozein nobela baino inportanteagoa bihurtu daiteke zure bizitzan. Denok jan behar dugunez, nahitaez egin behar da lan, baina ahal den neurrian nahiago dut pasioarekin egin edozein lan.

> **"Kostaldeko herri baten nire erreferentzia bakarra Getaria zen"**

Getariako Sustraiak herri-ekimena

Gure historiaz hausnarketa egiteko sortutako Getariako Sustraiak herri-ekimeneko kideekin solasaldia izan dugu, eta hona hemen gure galderei eman dieten erantzuna:

Nondik sortu da herri-ekimen hau sortzeko ideia?

Herri-ekimena, herritarrongandik sortu zen zuzenean. 2009. urtea zela-eta, zenbait berri eta zurrumurru entzun ziren herrian, Getariak 800 urte betetzen zituela esanez. Horri buruz hausnarketa egin beharra zegoela iruditu zitzaigun, jakitun Getaria herria 1209. urte aurretik ere existitzen zela. 1209. urtea, Gaztelako erreinuak Getariari Hiri Gutuna zeritzona eman zion urtea izan zen, ez Getaria sortu zen urtea. Horri buruz hausnartu, herritar guztiak informatu eta eztabaida sortzeko asmoz sortu zen beraz Getariako Sustraiak. Gure leloa, hasieratik, ez da izan data zehatzak ospatu edo kondenatzea, baizik eta gure historiako gertaera nagusiak gogoratzea eta ikuspegi kritikoa izatea.

Zenbat lagunek osatzen dute taldea? Irekia al da?

Momentuz 25 lagun inguru biltzen gara ekimenean; baina, gure taldea guztiz irekia eta anitza da, eta herritar orok du bertan lekua. Herri-ekimeneko partaide izateko gure herriko historiaren interesa baino ez da behar. Horren harira, datozen asteetan bigarren deialdi ireki bat egingo da, lehen deialdian elkartearen berri izan ez zuten herritarrak edo agertu ezin izan zutenak ekimenean parte hartzera bultzatzeko. Gure helburua ahalik eta talderik zabal eta heterogeneoena osatzea da.

Zein da taldearen helburu nagusia?

Gure helburu nagusia Getariako historia eta egungo errealitatearen inguruko hausnarketa egitea eta herritar orori horren berri ematea da; azken batean, getariarrok gure historiaren berri izatea. Hau da, egungo Getaria iraganean izandako hainbat gertakariren ondorioz da den bezalakoa. Gure asmoa Getariako historia osoa aztertzea da: Erromatarren garaia, Nafarroako Erreinua, 1209. urteko Hiri Gutuna eta gaur egungo Geta-

ria; dena den, 1209ko Hiri Gutunean enfasi berezia jarri da.

Getariako sorreraren datari dagokionez, herrian nahasmena dagoela iruditzen al zaizu?

Hasiera batean, bazegoen nahasmen apur bat, Getariak aurten 800 urte betetzen zituela esaten baitzuten. Guk arrisku hori ikusten genuen, 1209. urtean Gaztelako Erreinuak emandako Hiri Gutuna, herriaren sorkuntzarekin nahasteko arriskua, hain zuzen. Argi genuen, ordea, eta zenbait historialarik horren froga ugari dituzte, Getaria herria 1209. urtea baino lehenagotik existitzen zela. Era horretan, halaber, arriskua zegoen data horren aurreko hainbat gertakari esanguratsu eta garrantzitsu (Nafarroako Erreinua, Erromatarren garaia...) ahaztu eta alboratuta uzteko. Ikuspegi osoa eta kritikoa sustatu nahi genuen, eta uste dugu ekimenaren hastapen honetan lortu dugula kontzeptuak argitu eta herritarrei horien berri ematea.

Zer aldatu zen 1209an Alfontso VIII.ak foru-gutuna izenpetu zuenean? Hau da, zer eragin izan zuen herrian?

1209. urtean Gaztelako Erreinuak Hiri Gutuna eman zion Getariari, eta, horren ondorioz, gure herria Gaztelako Erreinuaren parte izatera igaro zen. Gutunaren bidez, Alfontso erregeak pribilegio eta eskubide zehatz batzuk eman zizkion Getariari, bere erreinuan sartzearen trukean. Bi aldeen arteko kontratutzat uler daiteke, herriko jauntxoen eta erreinuaren arteko hitzarmentzat. Erreinuarentzat interesgarria zen Getaria bere partaide izatea, kostako herria izanik gure portuak garrantzi estrategiko handia baitzuen (Europara begirako interes komertzialak). Trukean herriak, edo hobe esanda herriko nobleek, zenbait pribilegio eta baliabide lortu zituzten.

Hiri Gutun hau, Gaztelako Erreinuak Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba 1.200 urtean bere gain hartzearen ondorio da. Hiru lurraldeak aurretik Nafarroako Erreinuko kide ziren; baina, Gaztelaren konkista medio, azken horien mendeko izatera igaro ziren. Hau da, neurri batean konkista militarra izan zen, baina, aldi berean, baita bertako jauntxo eta nobleen interes eta akordioen ondorio ere.

Zer harreman duzue Udala eta arkeologo-taldearekin (Xabi, Suso...)?

Herri-ekimen gisa hasi ginenetik, une oro izan dugu herriko eta inguruko talde, eragile zein administrazioarekin elkarlanean aritzeko borondate sendoa. Xabier, Suso, Fernando Txueka eta beste zenbaitekin harremanetan jarri ginen duela hilabete batzuk; bagenekien zenbait hitzaldi antolatzekotan zebiltzala. Elkarrekin bildu eta elkar aurkeztu ginen. Bakoitza bere aldetik jardun beharrean, elkarrekin aritzea egokiago zela argi genuen. Beraiek ordurako hitzaldi sorta antolatuta zuten, eta guri, egia esan, oso iniziatiba ederra eta interesgarria iruditu zitzaigun beraiena. Gure adostasuna eta babesa azaldu genien, eta, handik aurrera, elkarrekin lan egiteko adostasuna erdietsi genuen.

Udalarekin ere bildu izan gara, bai alkatearekin eta baita kultura zinegotziarekin ere, eta badute gure ekimenaren eta gure asmoen berri. Elkar lagundu eta elkarrekin ekintzak aurrera ateratzeko asmoa azaldu genuen bi aldeek. Horren harira, gu ekintza multzo zabal batekin gabiltza orain lanean, eta, horiek aurrera joan ahala, Udalarekin bilduko gara berriz elkarlan hau sendotu, elkarrekin gauzak aurrera atera eta herrian ekintza eta jardunaldi sorta polita antolatzeko.

Taldeak ba al du organigrama bat, hau da, lehendakaria...

Ez dago organigramarik. Ekimeneko partaideak 10 egunean behin elkartzen gara eta denon artean ideiak bota, eztabaidatu eta hausnartzen ditugu. Funtzionamendua asanblada batena da. Ekimeneko kide bakoitzak bere burua ordezkatzen du, eta aipagarria da pentsamendu eta alor desberdinetako neska-mutilak elkartu garela bertan. Alde horretatik oso aberasgarria da, eta etorkizunera begira ere pentsaera eta asmo desberdineko jendearen topagune izan nahiko genuke.

EKIMENAK

Bestalde, hainbat egiteko prestatu dituzte datozen hilabeteetarako:

- *Maiatza, ekaina, uztaila:* deialdi irekia, boletoak, tonbola, triptikoa, web orria...

- *Abuztuko azken astean/irailеko lehen astean:* panelak; herriko olerkari, kantari eta artisten emanaldia; haurrentzat altxorraren bila; ipuin-kontalaria; balearen historia nerabeentzat; euskara historian zehar; triki-poteoa; elektro-txaranga; bertso-afari tematikoa; dokumental-emanaldia aire librean; azoka.

- *Abenduaren 3an:* Nafarroaren eguna; dokumental-emanaldia.

"Helburu nagusia Getariako historia eta egungo errealitatearen inguruko hausnarketa egitea"

Amaia Iribar eta Maider Ostolaza

Ekintzaz beteriko sanisidroak

Halaxe izan dira aurtengo sanisidroak ere, ekintzaz bete-bete etorri baitira, eta adin guztietako lagunek izan dute zer ospatu: trikitilariak, dantzak, omenaldia, jokoak, kirolak, suziriak, animaliak, bertsoak, euskal-dantzak… Aurten, adinduei egin ohi dieten omenaldian, Joxe Antonio Azkue eta Joxepa Etxabe izan dira omenduak.

Artelatza elkartean izan zen Mus Txapelketan hogei bikotek hartu zuten parte, eta irabazleak Joxe Mari Lertxundi eta Joxe Mari Garate izan ziren; txapeldunordeak, aldiz, Jose Luis Eizmendi eta Jabier Galarraga izan ziren, eta, azkenik, hirugarren postuan, Iñigo Telleria eta Amagoia Mugika gelditu ziren.

Auzoko frontoian jokatu zuten binakako pilota-partida 22-19 bukatu zen, eta Iñigo Olabarrik eta Josu Alberdik irabazi zuten, Kajuategiko Eneko eta Ioseba anaien kontra.

Paella Txapelketan, ostera, Meaga bailarako Lurdes Azkue eta Itziar Egaña izan ziren garaile.

Bestalde, "Xanisidro" II. Artzain Zakur lehiaketa eta Gipuzkoako Txapelketarako I. Kanporaketaren irabazleak Mikel Aizpurua eta "Beti" txakurra izan ziren; bigarren postuan, Mikel Eguren gelditu zen "Labrik" txakurrarekin; hirugarrenean, Jexux Larrañaga eta "Zeru"; eta, azkenik, laugarren postuan, Joxeantonio Arrillaga "Linda" txakurrarekin.

Argazkia: Azkue



Argazkia: I. Ezenarro

Argazkia: Azkue

Argazkia: I. Ezenarro

Argazkia: I. Ezenarro

Argazkia: Azkue

Argazkia: Azkue

Artzape: getariarron topagunea. Noiz arte?

2001eko maiatzaren 25ean *Artzape* aldizkaria sortu zenetik zortzi urteko ibilbidea izan du, gorabeheraz beteriko ibilbidea. Bi helburu nagusirekin sortu zen aldizkaria: batetik, herri-informazioa lantzea, eta, bestetik, euskararen normalizazio-prozesuan euskaraz irakurtzeko ohitura sustatzea. Horrez gain, orain arte argitaratutako 82 aleetan, herritarrek aldizkarian parte hartzeko aukera izan dute, bai gutunen atalean, baita iritziak adierazteko zutabeetan ere.

Gaur egunera arte egindako bidean, hainbat oztopori aurre egin behar izan dio; hain zuzen ere, 2005. urtean, aldizkariak egoera larria bizi izan zuen, erakunde publikoetatik jasotzen zen diru-laguntzak %40 jaitsi baitziren. Gaur egun, tamalez, egoera berean gaude, berriro: 2007. urtetik hona, Eusko Jaurlaritzatik nahiz Foru Aldunditik jasotzen diren diru-laguntzak --hau da, aldizkariaren diru-iturri nagusietako bi– murriztu egin dira, eta gastuak, nola ez, igo.
Ondorengo taulan, aldizkariak azken bi urteetan izan dituen diru sarreren eta irteeren eboluzioa adierazi da:

GASTUEN LABURPENA	2007	2008
Langile-gastuak (nomina eta gizarte-segurantza)	15.722	16.523
Funtzionamendu-gastuak (telefonoa, Topagunea, beste hainbat gastu)	2.895	2.478
Produkzio-gastuak (inprimategia)	7.352	7.711
Bestelako gastuak (banaketa, posta-zerbitzua)	947	1.100
Guztira	**26.916** €	**27.812** €

SARREREN LABURPENA	2007	2008
Eusko Jaurlaritza	6.901	4.983
Foru Aldundia	2.850	2.773
Udala	5.000	5.000
Harpidetza	3.450	3.450
Publizitatetik eskuratutakoak ("teorian" jaso beharrekoak)	6.300	6.732
Entitate pribatuen ekarpenak	0	500
Bestelakoak	500	500
Guztira	**25.001** €	**23.938** €

Aldea (sarrerak-irteerak) (zorra)	**-1.915** €	**-3.874** €
Hilero sortzen den zorra	**174** €	**352** €

Koadroan adierazi dugun guztia gutxi gorabeherakoa da, sarrerak ez baitira hain erraz "sartzen"; hau da, gaur egun, Foru Aldundiaren 2008. urteko bigarren zatia jasotzeko daukagu oraindik, eta, publizitateari dagokionez, hainbat sarrera ez dira gauzatzen edota dezente beranduago sartzen dira. Gastuak, aldiz, fin-fin ordaindu behar dira, aldizkariak bestela ez bailuke aurrera egingo. Horrekin guztiarekin, beraz, honako hau adierazi nahi dugu: hilero metatzen den zorra ez da 352 eurokoa, baizik eta zuloa handiagoa da.

Horrez gain, egun bizi dugu krisi-egoera dela-eta, diru-laguntzak are gehiago murriztu diren beldurrez gaude (2009. urtean izango diren diru-laguntzen ebazpenak ekainaren bukaeran ezagutuko dira).

Gaur egungo diru baliabideekin Artzapek ezingo du aurrera jarraitu, eta ozenki esan nahi dugu herritar guztion laguntza behar dugula. Aurrera begira pausoak ematen hasi gara, momentuko egoera gainditzeko, batez ere. Lehenik eta behin, Udalari egin diogu eskaera, eta, oraingoz, erantzunaren zain gaude. Bestalde, herritarrak animatu nahi ditugu, laster egingo dugun harpidetza-kanpainan izena eman dezaten. Gaur egun, diruz laguntzen duten (18 euro) 178 harpide ditu aldizkariak (horietatik 60 herritik kanpo), eta, aurrera jarraitzeko, 400 harpide beharko lirateke, gutxienez. Horrez gain, Zarauzko Barceló Bidaiak lagunduta, landa-etxe batean asteburu bat pasatzeko zozketa jarri dugu abian, eta, ekainaren 23an (San Juan gauean) jakingo da nor den irabazlea.

Egoera hau dela-eta, hainbat irtenbideri buruz hausnartu dugu:

- Aldizkariaren maiztasuna gutxitzea; erabaki hori hartuz gero, diru-sarrerak murriztuko lirateke, urtean 11 ale atera behar baitira, gutxienez.

- Publizitatea ugaritzea; irtenbide hori lortzen saiatu nahi da, baina bi oztopo ditugu: bata, aldizkarian ez dagoela leku gehiegi publizitate gehiago jartzeko, eta, bestea, krisi-egoeran zaila dela publizitatea gehitzea.

- Harpidedun-kopurua ugaritzea.

- Banaketa selektiboa egitea; orain arte, banaketa masiboa egin izan da, baina gastuak murrizteko, aldizkaria harpidedunei soilik banatzearen aukeraz hausnartu behar da.

Nolanahi ere, aldizkaria osatzen dugun lan taldearen partetik, eskerrak eman nahi dizkiegu bai orain arte gurekin harpide izan diren guztiei, bai eta aldizkarian publizitatea jarri izan duten guztiei ere.

Aurrera jarraitzeko gogoa eta asmoa dugu; baina, ezin da ahaztu aldizkaria hilero-hilero herriko etxe guztietako postontzietan jasotzeko, ezinbestekoa dela guzion ahalegina.

Euskara borondatetik hasten da

Ez dakit gaur egun jasaten ari garen krisialdia benetan ekonomikoa edo borondatezkoa den. Agian euskal hedabideetan dagoen krisia, krisi ekonomikoa iritsi aurretik hasitakoa da. Ia dena digitalizatuta dagoen gizarte honetan, badirudi paperak ez duela lekurik, ez txokorik. Baina herrian irakurle leial askoak eta asko ditugula ondo baino hobeto dakigu, baita Getariatik kanpo aldizkaria jasotzen duten herritarrak ere. Eta noski, merkatu txiki horrek urrea balio du guretzat, euskaraz irakurtzen duten euskarri bakarra baita Artzape askorentzat, zortzi urte hauetan nortasun propioa izatera iritsi den herri-aldizkaria. Mundu digitala arrotza egiten zaion irakurlearengana iristen eta eguneroko ogia bezain garrantzitsua zein beharrezkoa den hilabetekaria izaten jarraitu nahi dugu zuretzat. Agian aurrerago iritsiko da aldizkaria webgunean irakurriko dugun unea, baina erronka hori guretzat bigarren mailan geratzen da. Bitartean sentsibilizazio kanpaina honetan, hein handi batean zuen borondateak aldizkaria eutsiko duela espero dugu. Ordenagailuko botoirik sakatu gabe aldizkaria sukaldeko mahai gainean irakurtzea, taberna batean kafea hartzen duzun bitartean irakurtzea, autobusean irakurtzea gustuko duzun horietakoa bazara, eutsi diezaiogun papereko herri-euskarri bakarrari, gure ondorengoek izan dezaten herriko zaharren kontakizunen berri, ahaztu ez ditzagun eta herriaren parte izan direla sumatu ditzagun.

post-data

Gurea den hizkuntza ez galtzeko ezer ezin duzula egin pentsatzen baduzu, etsita zaude.
Euskarak baliorik ez duela pentsatzen baduzu, ez du izango.
Hizkuntza bat galdu egingo dela pentsatzen baduzu, galdutzat jo dezakezu.
Bizitzan arrakasta duten gauza guztiak pertsonaren borondatetik hasten dira.
Baiezkoan pentsatzen baduzu, ahaleginak egi bihurtuko dira.
Ezezkoan pentsatzen baduzu, ez zara inoiz lanean hasiko.
Euskara aurrera ateratzea nahi baduzu, hori posible dela pentsatzen duzulako izango da.

Treneko abentura

Otsailaren 25ean Lurraska aterpetxera (Ajangiz) joateko asmoarekin atera ginen Getariatik, 5. eta 6. mailako neskamutilak. Getariatik Zumaiara autobusez heldu ginen, eta, han, Lemoara doan Kostako Trena hartzeko asmoa genuen. Pertsona asko ginenez, geltokian sakabanatuta jarri ginen, bi bagoitan sartzeko. Aurreko aldean 6. mailakoak zeuden, eta gu atzean.

Zumaian, lehen trenaren zain.

Trena iristean, ateak ireki eta aurrean zeudenak arazorik gabe sartu ziren beren bagoian. Baina atzeko bagoitik, ikastetxe bateko 46 gazte irten ziren. Ate batetik 9 lagun sartu ziren barrura; baina, gainerakoek ezin izan zuten

Argazkian, lehen trena hartu ezin izan zuten ikasleak ageri dira.

sartu, ateak itxi eta trena abiatu egin zelako.

Barruan zihoazenek hasieran beldurra sentitu zuten; batzuk erdi negarrez zeuden. Disgustu ederra hartu zuten, eta bakardadea sentitu ere bai; ez zuten horrelakorik espero, eta zur eta lur geratu ziren. Pare bat lagunek laguntza ere eskatu zuten marruka, eztarria eten beharrean.

Kanpoan geratu ginenok gauza asko sentitu genituen: amorrua, sustoa, harridura eta pena. Baina laster lasaitu ginen, hurrengo trena ordubetera zela esan zigutenean. Tren geltokiko arduradunak erreklamazio orria betetzeko ezan zigun, eta halaxe egin genuen.

Hurrengo trena hartu eta handik aurrera dena ondo joan zen. Horixe izan zen treneko gure abentura.

Lemoatik Gernikara doan trenean, bidaiari baten umearekin jolasten ageri dira zenbait ikasle.

5. mailako ikasleak

elan euskadi
ONGD - GGKE

DARWINEN AMEZGAIZTOA (Darwin´s nightmare)

Egilea eta gidoilaria: *Hubert Sauper.*
Herrialdeak: *Frantzia, Austria eta Belgika.*
Urtea: *2004.*
Iraupena: *107 min.*
Dokumental Produkzioa: *Edouard Mauriat, Antonin Svoboda, Martin Gschlacht, Barbara Albert, Hubert Toint eta Hubert Sauper*
Argazkia: *Hubert Sauper*
Muntaia: *Denise Vindevogel*

"Darwinen amezgaiztoa" izeneko dokumentalaren proiekzioarekin, joan den maiatzaren 28an, EZTABADAIRAKO RORO KRITIKOA jarri zuen abian ELAN-EUSKADIk. FOROA era guztietako pertsonei dago irekia eta elkartasuna zein gaur egungo eredu sozio ekonomikoaren inguruko hausnarketa kritikoa sustatu nahi ditu. Hilean behin, FOROAK, dokumentalak, pelikulak eta hitzaldiak oinarri hartuz, era askotako edukiak jorratu nahi ditu. Gaiek eta edukiek honako hiru ardatz hauei emango die lehentasuna:

- Kapitalismoaren eredua eztabaidatzen duten begiradak eta analisiak.
- Memoria historikoa berpizteko beharra.
- Eredu sozio ekonomiko alternatiboak aldarrikatzen ari diren herrialde zein mugimendu sozialen elkartasuna.

Datozen hilabeteetarako, honako proposamenak egin nahi ditugu:

- "Memoria del saqueo" Pio Solanasen 2004ko dokumentala
- "Daens" Stijn Coninx zinemagile holandarraren 1992ko pelikula
- "Salvador Allende" Patricio Guzman txiletarraren 2006ko dokumentala

Topaketa bakoitzean, aukeratutako gaiarekin lotura duen materiala (fitxa teknikoa, elkarrizketak edota artikuluak) banatuko dira solasaldia eta eztabaida sortzeko edo errazteko asmoz.

Lekua: Iturzaeta Herri Eskolako aretoan

azkuelek ELEKTRIZITATEA
K21 MALTATUA
- DEKORAZIOA
- ILUMINAZIOA
- ERA GUZTIETAKO INSTALAZIO LANAK
Tailerra/Denda: Araba, 41 (MAXI) 20800 ZARAUTZ
Tel./Fax: 943.13.04.33 - 943.13.33.08
Mobila: 619.52.35.39 azkuelek@euskalnet.net

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrilan espezialitatea
kaia, 1
20808 GETARIA Tel.: 943 14 04 12

Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
barne diseinua interiorismo
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@euskalnet.net

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

] Joxi Erauskin [

Show amaiezina

Eta oraindik zirkuak aurrera jarraitzen du. Mundu zabaleko antzoki erraldoietan etengabe ari dira antzezlanak egiten. Oraingo honetan, krisia dute gai nagusi. Krisia non-nahi. Denbora gutxian, toki askotako dirua eta aberastasuna xahutu omen da, bat-batean. Denak negar malkotan bustirik, diru eta laguntza eske: banketxeak, aseguru-etxeak, automobilgintzako langileak, enpresa erraldoiak eta abar luze bat. Hamarkada luzeetan diruz puztu direnak orain diru eske. Eta agintariak, beti bezala, beren aktore-lana ezin hobeto betetzen. Izan ere, dirutza handia eman diete, finantza- eta ekonomia-sistema osoa kolokan jarri dutenei, ezer gutxiren truke. Nahiz eta zenbait banketxek gainbehera egin duten, horien arduradun asko dirutza handia jasota joan dira etxera. Guztion dirua, alegia, diru publikotik jarri baitute. Eta nortzuk ordainduko dute hori guztia? Bada, betikoek: jende txiroak, jende arruntak, langabeek… Gaur egun, ez dago dirurik goseak daudenentzat, baina bai, ordea, bankuak erreskatatzeko eta gerrak finantzatzeko. Eta oraindik ere, ausardia dute esateko denok barku berean gaudela eta, agian, langileak lanetik dohain botatzea beharrezkoa izango dela arazoa konpontzeko. Urtean, 20.000.000 euro irabazten dituen batek esan berri du hori.

Antzezlan ikusgarri hori egiten ari diren bitartean, jendea mutu dago, antzokietako eserlekuetan itsatsita. Hainbeste urtetan eserita mugitu gabe egon ondoren, indarra falta zaigu altxatzeko eta zerbait egiteko. Orain dela gutxi arte, diktadoreak aktore nagusi bakar zirenean, jendea indarrez altxatzen zen eserlekuetatik oihuka eta garrasika, diktadoreak antzokitik alde egin zezan. Eta, kostata, baina antzoki gehienetatik alde egin behar izan zuten, nahiz eta oraindik toki batzuetan jarraitzen duten.

Gerora, ordea, aktore baten ordez asko agertu ziren antzokietan, denak mozorrotuta, pailazoak bailiran (ez nahastu hemen benetako pailazoak beste pailazo hauekin, benetako pailazoek duintasun handia baitute hauen aldean, jendeari barre eginarazteko eta penak kentzeko). Maisulanez lotu zituzten beren egitekoak, eta guzti horri demokrazia deitu zioten. Bakoitzari bere egitekoa eman zioten. Helburua? Jendea lokartuta edukitzea ahal zen denbora gehienean, antzokiko eserlekuetan itsatsita. Horrela munduak hobeto funtzionatuko zuen beren intereserako. Hain lotua utzi zuten dena, ze gizartea nahastuta baitago, noraezean. Harrapatuta, zer egin ez dakiela.

Freddie Mercuryk bere abesti hartan honela zioen,"The show must go on","Showak aurrera jarraitu behar du". Eta aurrera jarraitzen du, eta maila guztietan, gainera. Ikusi besterik ez dago gurean ere gertatzen ari dena. Aktore lanak ederki banatu dituzte espainiar agintariek, epaileek eta gainerakoek, gizartearen zati handi bat erakundeetatik kanpo uzteko. Antzokian errealitatea garbi islatzeari beldur izan, eta aktore asko antzokitik kanpo geratu dira, beraiek nahi duten antzezlana hobeto egiteko. Ostrukarena egitea nahiago izan dute, errealitateari aurre egitea baino. Jakinik, denbora asko baino lehen tronpatu egingo direla. Gauza bat argi baitago, errealitatea ezin da ezkutatu. showa amaitzen denean berriro agertzen da.

Gaur egun dena ikuskizun bihurtu da. Hori garbi adierazi du berriki Italiako Berlusconi presidenteak, Europako parlamenturako hautatu zituen emakume ederrengatik jasotako kritiken ondoren; hau esan zuen " …zergatik ez ditut ba aukeratuko honelako neska ederrak eta dotoreak politikarako. Hizkuntzak menperatzen dituzte, eta gainera, izugarrizko showa eskainiko dute parlamentuan. Horra hor, gizon horrek lotsarik gabe esandakoa. Hau ez da gezurretan ibiltzen, beste batzuk bezala, pentsatzen duena esateko..

Musulmanak

Hil honetako Artzape aldizkariko sinesmenen txokoan, Islamari buruz idatziko dizuet. Getariako herrian badira, Islamaren jarraitzaileak, 30 bat lagun gutxi gorabehera, eta horietako bat Ahmed Mouffok dugu. 40 urte dituen gizon hau Algerian (Argelian) jaioa da, baina Begoña Ibarbiarekin ezkondu eta, orain, Getarian bizi dira, Nora alabarekin.

Nika: Musulman, Islama, Mahoma... guretzat esanahi berdintsuak dituzten hitzen ezaugarriak zehaztuko al dizkiguzu?

Ahmed: Gure historian, Gabriel goiangeruak Ala Jaungoikoaren hitzak errebelatu zizkion Mahomari. Hitz horiek biltzen dituen liburuari deitzen diogu Korana. Musulmanentzat Korana erlijio-liburua izateaz gain, bizitzako zuzenbide iturri eta zutabe nagusia da.

Laburbilduz, gure erlijioa Islama da, musulmanak bere jarraitzaileak gara eta Mahoma, berriz, gure profeta garrantzitsuena da.

N.: Eta Musulman denak al zarete arabiarrak?

A.: Kar, kar, kar... Munduan zehar herrialde asko dira gehiengo erlijioa Islama dutenak, baina ez dira denak arabiarrak. Adibidez, Magreb izeneko eskualdean bi arraza ezberdinetako jendea bizi da: jatorriz bertakoak diren berbereak eta oso antzina iritsi ziren eta gaur egun gehiengoa diren arabiar kastakoak. Eskualde hori Mauritania, Maroko, Algeria, Tunez eta Libia herrialdeek osatzen dute.

Egipton, berriz, egiptoarrak dira eta ez arabiarrak. Afrika beltza ere hor dugu, Senegal, Mali, Nigeria... herrialdeek osatua. Afganistan, Iran eta Pakistaneko biztanleak, bestalde, musulman pertsiarrak dira.

Beraz, jatorriz arabiarrak diren musulmanak herrialde arabiarrean bakarrik daude; Palestina, Saudi Arabia, Irak, Sudan, Libano, Yemen, Siria eta abar luze batek osatzen duten herrialdean.

Gainera, ezin dugu ahaztu munduko lurralde guztietan aurki ditzakegula musulmanak. Diotenez, 800 bat milioi musulman gaude munduan zehar.

N.: Zein dira musulman baten betebeharrak?

A.: Bost dira bete beharreko agindu nagusiak:

-**1**. Sinestea Ala dela Jaungoiko bakarra eta Mahoma bere profeta
-**2**. Egunero bost aldiz otoitz egitea
-**3**. Behartsuei limosna ematea
-**4**. Ramadana betetzea; hau da, 30 egunetan egunez baraualdian egotea.
-**5**. Bizitzan behin, gutxienez, Meka hiri santura erromes joatea, diruz eta osasunez ahal badugu behintzat

N.: Esan diguzu Begoñarekin ezkonduta zaudela, posible al da bi erlijio ezberdinetako pertsonen arteko ezkontza?

A.: Bai; hain zuzen ere, Islamaren jarraitzaile garenok kristauekin ezkon gaitezke, ohikoa ez izan arren. Azken batean, jatorriz historia bera dugu, gure profetak eta kristauenak berak dira. Dugun ezberdintasunik nabarmenena zera da, guretzat Jesus profeta bat dela eta ez Jainkoaren semea. Gainera, guretzat Muhammad Mahoma Islamaren sortzailea izateaz gain, mundu honetan izan den azken profeta da.

N.: Bataioa ospatzen al duzue?

A.: Zuen erara ez. Gurean, haur bat jaiotzen den momentuan, normalean, aitak semea edo alaba besoetan hartzen du eta kopetan muxu bat ematen dio. Segidan, eskuineko belarrira otoitzerako deia egin eta



gero, ezkerreko belarrian otoitz jakin bat esaten dio. Handik 7 egunera, umeari izena jarri eta festa bat ospatzen dugu. Bertan ohitura da arkumea jatea.

N.: Eta hiletak non eta nola egiten dira?

A.: Musulman bat hiltzen denean, egiten dugun lehenengo gauza bera garbitzea izan ohi da. Zapi zuri batekin hildakoa bildu eta gero, meskitara eraman eta haren alde otoitz egiten dugu. Bertan, senitarteko batek bildutakoei galdetzen die hildakoak inorekin zorrik ba ote zuen; hala izanez gero, zor hori ordaintzeko ardura senitartekoek hartzen dute. Azkenik, hilotza Mekara begira lurperatzen dugu; hilobia harriz estali eta gainean lurra botatzen diogu, berriro.

Orain dela gutxi arte, Euskal Herrian hilerri musulmanik ez genuenez, hildakoak jaioterrira bidaltzen ziren. Baina hemendik aurrera ez da hori beharrezkoa izango, Bilbon hilerri bat eraiki baitigute.

N.: Nola dago egituratuta zuen eliza?

A.: Egituraketa nahiko horizontala dugu, sinestun denon gainetik imanak bakarrik daude. Meskita bakoitzean iman bat egon ohi da, eta bere eginkizuna otoitza zuzentzea eta fededunen galderei erantzutea da. Horretarako, Korana ongi ikasia eta aztertua izan behar dute, gure bizitza liburu santu horrek gidatzen baitu. Imanak gizonezkoak izaten dira eta ezkontzeko aukera izaten dute. Horien gainetik ez dago beste inor.

N.: Nola ikusten duzu Islamaren etorkizuna?

A.: Gizaldiak daramatzagu Korana batere aldatu gabe, eta bizitza horren arabera moldatzen dugu. Nire iritziz, Koranak gaur egungo gizartean galtzen ari diren baina hain garrantzitsuak diren balioak ematen dizkigu, eta musulman herria balio horien arabera bizi da. Horrelaxe jarraituko dugun itxaropena dut.

Hiru ordu Ahmedekin hitz egiten oso gustura jardun eta gero, barkamena eskatu nahi diot esandako hainbat gauza idazteko aukerarik izan ez dudalako. Hala ere, nirekin konpartitutako guztia oso aberasgarria izan zait. Eskerrik asko eta
SALAM ALIKOUME!

10 Behe Erdi Aroan Getariako itsas jarduerek izandako gorakada

Getariako hiribildua erakunde bihurtu eta urte gutxira, bertako itsas jarduerek berebiziko garapena izan zuten; horrenbestez, urte gutxian, Getaria benetako itsas potentzia izatera iritsi zen, Gipuzkoako gainontzeko herriekin batera. XIII eta XIV. mendeetan, itsas jarduera horien garapena babestu zuten zenbait pribilegio eskuratu zituzten getariarrek; besteak beste, itsasontziak eraikitzeko behar zen zura Gipuzkoako edozein basotan eskuratzeko ahalmena, zergasalbuespenak eta penintsula barnetik zetozen merkataritza-harremanak Getariara bideratzeko aginduak. XIII. mendean, Itsasbazterrreko Ermandadean (edo Hermandad de las Marismas) izan zuen partaidetza aipatu behar da. 1296an sortutako ermandade horren funtsa atzerriko ontziteriek hemengoei eginiko lehia eta erasoak ekiditea zen; zehazki, Gipuzkoa, Bizkaia eta Kantabriako portu nagusienak bildu ziren bertan. Getaria, ordea, ez zen elkarteko beste kide bat soilik; izan ere, bertako udal artxiboa izan zen ermandade horren sorrera-agiriaren gordelekua. Kontuan izan behar da guk orain ezagutzen dugun Gipuzkoaren hedadura gauza berria zela ermandadea sortu zen garaietan; hain zuzen, 1200. urtera arte, Gipuzkoako kostaldea Deba eta Oria ibaien arteko eremura murrizten zen, eta, urte horretatik aurrera, Debatik mendebalderako zatia eta Oriatik ekialderakoa gehitu ziren. Beraz, jatorrizko Gipuzkoa haren kostaldeko portu nagusia Getariakoa zen; agian, antzinako nagusitasun horren aitorpena ere izan zen ermandadean izan zuen buruzagitza.

Garai hartan indarrean zeuden itsas jarduera nagusienak itsas merkataritza eta garraioa, itsaso handiko arrantza eta ontzigintza ziren, dudarik gabe. XIII., XIV. eta XV. mendeetan eta XVI. mendeko lehen hamarkadetan, euskal ontziek Europako ozeano atlantikoko eta mediterraneoko itsasbazter guztietan jardun zuten merkataritza- eta garraio-lanetan, eta Europa osoko ontziteria nagusietakoa izatera iritsi ziren. Aldi hartan, euskal baleontziak eta beste arrantza-ontzi batzuk Galiziako eta Islandiako uretara joaten ziren baleak ehizatzera, eta beste batzuk, berriz, Irlanda eta Ingalaterrara, bakailaoa, legatza, izokina eta "sardin zaharra" arrantzatzera. Noski, jarduera horiek guztien beharrak ase zitzaten, ontzigintzak berebiziko garapena izan zuen euskal kostaldean; gainera, bertan eraikitako ontziek izugarrizko fama lortu zuten Europa osoan.

IRUDIA: Zarautz Jauregian aurkitu zuten XIII-XIV. mendeko zeramika zatia, Akitaniatik ekarria.

Itsas ekonomiaren garapen horren ondorioz, Gipuzkoako ekonomia eta gizartea ere aldatu egin ziren. Ekonomiari dagokionez, burdingintzak sekulako gorakada izan zuen, burdinoletan ekoiztutako burdina Europako bazter guztietara hedatzen baitzuten hemengo merkataritza-ontziek. Gipuzkoako portuetan, Hegoaldeko gainontzeko herrialdeetan bezala, garai hartako merkataritza-bide eta -sare nagusien garapenak onura ugari eragin zituen; besteak beste, hemengo biztanleen bizi-baldintzak hobetzea ekarri zuen. Are gehiago, hiribilduetan merkataritzari, industriari eta itsas jarduerei esker aberastutako merkatari- eta armadore-talde boteretsuak sortu ziren, berehala Ahaide Nagusi izeneko jauntxoekin batu zirenak. Herrietako oligarkia horiek tokian tokiko ekonomiaren zuzendaritza eta udalbatzetako botere politikoa eskuratu zituzten. Jauntxo horien botere eta aberastasunaren adierazgarri, dorre eta jauregi apainak eraiki zituzten, han eta hemen; horren adibide dugu, besteak beste, Getariako Zarautz Jauregia, lehenengo aldiz XIV. mendean eraiki baitzuten dorre moduan.

Azken urteetan Getarian egin diren ikerketa arkeologikoek gertakari horiei buruzko informazio ugari eman digute. Alde batetik, aipatzekoa da duela zenbait urte Malkorbeko badian, Iturritxiki parean, aurkitu zuten XVI. mende hasierako merkataritza-ontzi flandiarra; itsasontzi hura kobrezko gai ugariz beteta iritsi zen Getariara, bertan ondoratu aurretik. Dirudienez, Afrikara joateko asmoa zuen itsasontziak, esklabo beltzak erosteko txanpon gisa erabiltzen ziren kobrezko uztaitxoak ere aurkitu baitzituzten barnean. Bestetik, Zarautz Jauregiko aurkikuntzak aipatu behar ditugu; bereziki, garai hartako jauntxo baten dorrean aurkitutako aztarnak. Besteak beste: Behe Erdi Aroko Europako hainbat erreinutako txanponak: Portugalgoak, Eskoziakoak, Frantziakoak, Flandesekoak, eta abar. Garai hartan erabiltzen zituzten zeramikazko ontzi gehienak ere itsasoz ekarri zituzten; horietako asko Frantziako lurraldeetatik.

Oilasko errea mangoarekin

Osagaiak:

Mango bat

Patata bat

Olioa

Gatza

Oilasko oso bat

Ura

Prestaketa:

Piztu labea 200ºC-tara eta zatitu oilaskoa. Horren ondoren, labeko plakan oilaskoaren neurriko ohantzea egin eta jarri gainean olioarekin ondo bustita; gero, labean sartu. Eduki labean minutu batzuk, gorritu arte. Ondoren, jaitsi sua 160ºC-tara, eta labean beste ordu erdi eduki, gutxi gorabehera. Patatak xerratan moztu eta mangoa laukitxotan, eta, garbitu ondoren, gainera bota.

Ordu laurdena pasatakoan, mango erdia hartu eta pure moduko bat egin ur apur batekin; pure hori oilaskoari botako diogu. Amaitzeko, beste ordu laurden bat eduki eta jateko prest.

On egin!!

Ohe elurtuan lo egin zuen mutikoa

***Idazlea**:*
Henning Mankell
(Suedia, 1948)
***Itzultzailea**:*
Jesus Mari Mendizabal
***Argitaletxea**:*
Erein
***Argitalpen urtea**: 2003*
***Orri kopurua:** 254*

Honako liburu hau ez da pertsonaia horri buruz idatzi zuen lehen liburua; Joel protagonistatzat duen hirugarren liburua da, eta, beraz, trilogia baten aurrean gaude. Aurretik, *Izarretara bidean zihoan txakurra* (2001) eta *Itzalak luzatu egiten dira ilunabarrean* (2002) idatzi zituen.

Protagonista Joel da, 14 urteko mutikoa. Aita-semeak bakarrik bizi dira, amak abandonatu ostean; horren ondorioz, bizimodu nahiko latza eta gogorra daramate. Buruhauste hori nahikoa ez, eta mutikoak aitaren alkoholismoaren eta bere nerabetasunaren arazoak pairatu behar ditu.

Ezbeharrak ezbehar, mutil ameslaria da: rock-erregea izan nahi du, bizi den Suediako herri txiki horretatik alde egin, eta, horrez gain, bere burua elur izoztuaren gainean lo eginez gogortzea du desio. Barruan dituen amets eta kezkek nerabe izatetik heldu izateko bidean lagun diezaioketela uste du.

Istorio hori kontatzeko, idazleak ekintzak diren moduan kontatzen ditu, eta irakurleari ez dio ezkutatzen bizitzaren gogortasuna. Hainbatetan, poetikotasunera ere jotzen du; batez ere, nerabearen psikologia islatu nahi duenean, baita aitaren arazoak sortzen dion ezintasuna azaldu nahi duenean ere.

Istorio gogor eta sakona izanda ere, idazleak bizitzan garrantzitsuena maitasuna eta maitatzen ditugunak direla irakatsi nahi digu.

ARRAINAK, ITXASKIAK, IZOZTUAK
ELKANO ARRAINDEGIA
KAIA Telefonoa: 943 140 192 20808 GETARIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

] ekaineko agenda

[Ekainaren 4a, osteguna]
ODOL-EMATEA
Noiz: 19:00etatik 21:00etara
Non:
Getariako Osasun Zentroan
Antolatzailea:
Gure Txeru Elkartea

[Ekainaren 7a, igandea]
ZAHARREN OMENALDIA
Kalejira, Meza Nagusia, Musika Bandak eta Abesbatzak eskainitako kontzertua, bazkaria, dantzaldia…
Antolatzailea:
Guraso Elkartea

[Ekainaren 13a, larunbata]
HONDARREZKO IRUDIAK EGITEKO TAILERRA
Noiz: 11:00etatik 13:00etara
Non: Malkorbe hondartzan
Irakaslea:
Manuel Fernandes
Antolatzailea:
Guraso Elkartea

[Ekainaren 27a, ostirala]
FUTBITOKO AFARIA
Noiz: 21:15ean
Non: Berdura plazan
Antolatzailea:
Gure Txeru Elkartea

] Emanaldiak

[Ekainaren 18a, osteguna]
MUSIKA-ESKOLAKO IKASLEEN IKASTURTE BUKAERAKO JAIALDIA
Noiz: 19:00etan
Non:
Herri Eskolako Zine-aretoan
Antolatzailea:
Udal Musika Eskola

[Ekainaren 20a, larunbata]
IKASTURTE BUKAERAKO JAIA: jaialdia, jokoak, tailerrak eta bazkaria
Antolatzailea:
Zanbuka Guraso Elkartea

] Erakusketak

[Ekainak 12a, 13a eta 14a]
BUZTIN-TAILERREAN ESKOLAKO HAURREK EGINDAKO LANEN ERAKUSKETA
Non: Elkano, 1ean

[Ekainak 19a, 20a eta 21a]
PINTURA TAILERREAN EGINDAKO LANEN ERAKUSKETA
Non: Elkano, 1ean

[Ekainak 26a, 27a eta 28a]
GURE TXERUK ANTOLATUTAKO ESKULANEN TAILERREAN EGINDAKO LANEN ERAKUSKETA
Non: Elkano, 1ean

] Musika, dantza

[Ekainaren 14a, igandea]
DANTZARI TXIKI EGUNA GETARIAN: Lesaka, Mutriku, Urretxu, Zarautz eta Gure Txeruko dantza taldeen emanaldia kalez kale
Noiz: 12:00etan
Antolatzailea: Gure Txeru

[Ekainaren 21a, igandea]
URRETXUN ETA MUTRIKUN DANTZARI TXIKI EGUNA: Getariako dantzariak bertan egongo dira

[Ekainaren 28a, igandea]
Zarautz Txiki Abesbatzaren kontzertua
Noiz: 12:30ean
Non: elizan

* MUSIKA ESKOLAN IZENA EMATEKO MATRIKULA-EPEA ZABALIK!!!
Noiz: maiatzaren 25etik ekainaren 5era
Non: Musika eskolako bulegoan
Ordutegia: 14:00etatik 16:00etara

] KZgunea

Noiz: 17:00etatik 20:00etara
Tutorearen ekaineko bisitak: 5ean eta 19an, 09:00etatik 13:00etara

] Irteerak

[Ekainaren 10a, asteazkena]
KANTABRIAKO ISLA ETA LAREDORA IRTEERA
Irteera-ordua: 09:00etan
Antolatzailea:
Arrantzale Zaharren Elkartea

[Ekainaren 17a, asteazkena]
GIMNASIAN DABILTZAN 3. ADINEKOEN IRTEERA
Antolatzailea:
Sahatsaga kiroldegia

[Ekainaren 20a, larunbata]
ARCACHONEKO UR PARKERA IRTEERA
Antolatzailea:
Gaglo Gaztelekua

[Ekainaren 28a, igandea]
GR-121 GIPUZKOAKO BIRA OINEZ
5. etapa: STA. AGEDA - ARLABAN (18 km)

] Jaiak

[Ekainaren 24a, asteazkena]
"SAN JUAN" FESTAK: Balenziaga kaleko jaiak

] Kirolak

[Ekainaren 12a, ostirala]
JUDO, GYM-JAZZ, CAPOEIRA, KARATE eta SPINNING erakustaldia
Noiz: 18:00etan
Non: plazan
Antolatzailea:
Sahatsaga kiroldegia

[Ekainaren 13a, larunbata]
"XABI IÑURRITA MEMORIALA" XII. FUTBITO TXAPELKETAren SEMIFINALA
Noiz: 16:00etan (lau partida)
Antolatzailea: Gure Txeru

[Ekainaren 14a, igandea]
GETARIAKO V. IBILALDI NEURTUA
Noiz: 09:00etan

[Ekainaren 27a, larunbata]
"XABI IÑURRITA MEMORIALA" XII. FUTBITO TXAPELKETAren FINALA
Hasiera: 16:00etan
Antolatzailea: Gure Txeru

UDA 2009:
BELA, PIRAGUISMOA, SURFA, SUP, URAZPIKO IHARDUERAK, IGERIKETA, FRONTENIS, SPINNING, AEROBIC
Izen-ematea eta informazioa:
Udaletxean eta Liburutegian

] Gaztelekua

GAIA: UDARA

Hainbat ekintza izango dira ekainean: pitxi tailerra, frontenis eta xake txapelketak, gynkana, irteera...

] Hitzaldiak

[Ekainaren 27a, ostirala]
"NEKAZARITZA: Mahasgintza eta txakolina"
Noiz: 19:30ean
Non: Udal aretoan
Hizlaria: Iñaki Txueka (Txomin Etxanizko arduraduna, enologoa)

Telefono interesgarriak

Udal bulegoa 943 896 024
Faxa 943 140 190
e-mail: *udala@getaria.org*
Kiroldegia 943 140 432
Kirol-portua 943 580 959
Taxiak
Segundo 607 720 242
Jose Mari 607 403 498
Udaltzaingoa 943 896 146
Liburutegia 943 896 147
Anbulatorioa 943 140 653
Botika 943 140 441
Herri Eskola.....943 140 729
SOSdeiak 112
Kofradia.....943 140 200

artzape aldizkaria
943 000 548
artzape@topagunea.com

] akordatzen

Gure Txeru elkartea

Juanita Egurbide *Kaxparrenekuak* utzitako argazkia.

Oraingoan aukeratu dugun argazkian, Txeruko garai bateko koroko kideak eta Txeruko txistulariak ikus ditzakegu. Guk horietako batzuen izena jakitea lortu dugu; hona, hemen:

Maria Pilar Arakistain, Iñaxita Silbeti, Mari Paz Lazkano, Mari Karmen Ezenarro, Mari Pilar Gartzia, Mari Karmen Manterola, Ana Mari Iribar, Koro Mugerza, Eugenio Egurbide, Juanita Egurbide, Maritxu Ezenarro, Alejandro Egurbide, Pedro Mari Azkue, Emilio Arakistain, Luis Mari Kamio, Jose Inazio Uzin, Juan Ramon Azkue, Jose Antonio De La Hoz eta Donato Arakistain. Zuzendaria Don Mikel zen, eta hainbat lekutan izan ziren abesten eta txistua jotzen: Tolosan, Lizartzan, Donostian, Zumaian, Madrilen (mutilak bakarrik)... Gaur egun, Gure Txeruren barnean hainbat talde daude, eta horietako bat da Euskal Dantzen Taldea; hain zuzen, hilaren azken ostiralean eskaini zuten kurtso-amaierako emankizuna.

Atal honetan jartzeko moduko argazki zaharren bat baduzu,deitu 943000548 telefonora edo artzape@topagunea.com helbidera bidali.

zorion agurrak

Eneko Oliden
Ekainak 13
Zorionak eta 4 muxu potolo etxeko erregeari.

Olaia Txueka
Maiatzak 26
Zorionak potxola!
4 muxu handi familiaren partetik!

Miren eta Ane Campos
Maiatzak 21
10 urte eta 10 muxu handi gure etxeko lore panpoxei.
Ondo pasa zuen eguna.
Etxekoak

Norbait zoriondu nahi izanez gero, argazkia bere testutxoarekin Txeruko postontzian utzi edo eta Eskualtxetara eraman. Gogoratu! bazkideok doan daukazue eta bazkide ez zaretenok 4 € ordaindu beharko dituzue argazki bakoitzagatik.

FULDAIN farmaziaren zaintza egunak: ekainaren 1etik 7ra arte (biak barne)

artzape

APIRILEKO ERANTZUNA: XIV.MENDEAN

IRABAZLEA: Karmele Iribar

MAIATZEKO GALDERA:

Zein urtetan sortu zen "Hermandad de las Marismas?

Artzapen bazkidea bazara eta erantzuna baldin badakizu, e-mailez (artzape@topagunea.com), edo gutunez bidal dezakezu (kale nagusia 1-3 z/g) edo bestela, deitu (943 000 548) MAIATZAREN 26a BAINO LEHEN.

BODEGAS Larchago

Saria: Hiru botilako Larchago ardo kaxa bat.

EUSKAL JAIA 09

MAIATZAK 29, OSTIRALA

Herriko frontoian, Gure Txeruk antolatuta, dantza-taldearen emanaldia:

19:30ean: HAURREN DANTZA EMANALDIA

22:30ean: GAZTE eta HELDUEN DANTZA EMANALDIA

MAIATZAK 30, LARUNBATA

09:30ean GOIZ SOINUA, Getariako txistulariekin

10:30etik 14:00etara Frontoian, AZOKA

11:00etan Udaletxeko balkoitik, bertso eskolako kideen PREGOIA

11:00etatik aurrera TALOAK (Segurako talogileen eskutik) eta SAGARDOA TXOTXETIK.

12:00etan Frontoian, GELO TRONPALARIAren erakustaldia

* Ekarri zuen zibak !!!

13:00etan Plazan, LARRAIN-DANTZA. Ondoren, BANAKOA eta beste plazako dantzak Gazte Alaiak txistulariekin.

Ondoren, II. IRRINTZI LEHIAKETA HERRIKOIA

17:30ean Plazan, TRIKITILARI GAZTEEN GETARIAKO X. TXAPELKETA

* Eguraldi txarrarekin eskolako aretoan izango litzateke

Ondoren, TRIKI-POTEOA, IZER eta ALABIER trikitilariekin

23:00etan Herriko plazan, PATXI ETA KONPAINIArekin ERROMERIA

MAIATZAK 31, IGANDEA

20:00etan Eskolako aretoan, helduentzako ANTZERKIA, Txalo produkzioen eskutik: "ATE JOKA", Sara Cozar, Joseba Usabiaga eta Iker Galarza

EGUNA JANTZI DUGU ETA ZU BILUZIK?